

Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 FORU ARAUA.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Arau osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru arauaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK	6
Laugarrena. Tasa bingo kartoiak erosteagatik.....	6
Zazpigarrena. Zorte, Enbido edo Zorizko Jokoen gaineko Tasan aplikaziozkoak diren zerga tasak eta kuota finkoak onartzea.....	7
(Indargabetua)	7
AMAIERAKO XEDAPENA.....	7

HITZAURREA

Urtero zerga antolamenduan aldaketak egiten dira zergaldi berrirako, urte naturalarekin bat datorren zerga likidazioari begira. Ondoko zerga hauek hartzen ditu erregulazioaren aldaketak: batetik, zuzeneko zergak, hau da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga; eta, bestetik, udal zergak, hau da, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.

Erregulazio horretan, urte natural baten hasierak eta beste baten amaierak oso eragin berezia izaten dute. Zerga politikan eta zerga antolamenduan zuzeneko garrantzia duten faktore ekonomikoak dira: inflazioa, edota urte berrirako neurri ekonomikoak hartzeko beharra edo komenigarritasuna.

Izan ere, inflazioa edo kontsumorako prezioen indizearen hazkundera aipatu zuzeneko zergetan kontuan hartu beharreko faktore ekonomikoa da. Batzuetan zerga progresiboak direnez eta beste batzuetan oinarri ezargarria zehaztean garrantzia dutenez, zerga horiek arautzean hasieran nahi ez den zerga-gehikuntza ekar dezakete.

Horregatik, ondorio horiek saihestearren eta, bestela, politika ekonomikorako neurri berriak hartzearen, zenbait neurri onartu ohi dira zerga antolamenduan, lehenago aipatutako helburuak lortzeko asmoz.

Horri erantsi behar zaio, lege antolamendu guztietan bezala, zerga antolamenduak ere edukien hobekuntza teknikoa lortu nahi duela etengabe. Beharizan hori eguneroko aplikazioan islatuta dagoenez, horrek behartzen du antolamenduaren edukian aldaketa teknikoak egitera, hobeto ulertu, interpretatu eta aplikatzeko asmoz.

Euroa 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera erabat ezartzearen ondorioa jasota geratu da foru arau honetan sartutako aldaketen edukian: zenbateko guztiak eurotan adierazita daude.

Helburu horiek kontuan hartuta eman da foru arau hau. Guztira hamar artikulua, zazpi xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor eta amaierako xedapen bat ditu.

1. artikulua bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauaren xedapen batzuk aldatu dira. Aldaketa horietako batzuek izaera tekniko soilak dute eta beste batzuk, ordea, funtsezkoagoak dira.

Funtsezko aldaketen artean, bereziki aipatu behar da tarifa 100eko 2 jaistea, bai eta murrizpen eta kenkari batzuk portzentaje hori igotzea ere. Murrizpenen igoeraren barruan, bereziki aipatu behar da aurreikuspen planei egindako ekarpenen murrizpena: portzentajearen muga desagertu da lanaren edo jarduera ekonomikoen etekinezi dagokienez egindako ekarpenengatik murrizten den diru kopuruan; beste aldetik, ez da exijitzen errenta mota hori lortzea aurreikuspen planei ekarpena egiteagatik murrizpena aplikatzeko. Murrizpen mota horren zerga tratamenduan izan den beste berrikuntza bat haien kopuruaren mugari dagokio: partaide berak, mutualistak edo bazkideak egindako murrizpenak eta

sustatzaileek edo bazkide babesleek egindako murrizpenak bata bestetik bereizi dira. Ekarpemota bakoitzerako, urteko 7.212,15 euroko muga independentea finkatu da, hau da, aurretik jarritako mugaren bi halako. Era berean, 52 urtetik gora duten edo elbarritasun baldintzak betetzen dituzten mutualistek, partaideek edo bazkideek egindako murrizpenen muga ere dezente murriztu da. Bestetik ere, oinarri ezargarriaren zati orokorra murriztu da prima finkoko gizarte aurreikuspeneko mutualitate bati ekarpenak egiten dituzten kirolarientzat. Azkenik, berrikuntza gisa beste kenkari bat sartu da, Errentamendu Hiritarrei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeak 2. artikuluan sartutako etxebizitzaren errentatzaileei eragiten dietena.

2. artikulua bidez, aldaketak egin dira Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 14/1991 Foru Arauan. Gehienbat aldaketen helburua da inflazioak kuotaren zehaztapenean duen efektua moteltzea; eta, horretarako, tarifa 100eko 2 jaitsi da eta ordainarazpen batzuen zenbatekoak igo dira. Aitortzera behartutako pertsona jakin batzuentzat finkatutako zenbatekoak ere gehitu dira. Aldaketa partikular gisa aipatu behar da, alde batetik, subjektu pasiboaren zehaztapenari buruzko erregulazioan egindako aldaketa: beste herri batera egoitza aldatzearen kasua jasota geratu da eta, horrela gertatuz gero, betebeharrak pertsonalagatik Gipuzkoan zergapetuta geratzeko aukera; bestetik, ondasun higiezin hiritarrei aplikaziozkoa zaien 60.100,00 euroko salbuespen berriari buruzko aldaketa.

3. artikulua bidez, xedapen batzuk aldatu dira Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 11ko 3/1990 Foru Arauan. Aurreko zergetan bezala, kasu gehienetan aldaketen helburua inflazioak kuota zehaztean duen efektua moteltzea da. Horrela, zergaren tarifak 100eko 2 jaitsi dira eta murrizpenak portzentaje bera igo dira. Berezitasun gisa aipatu behar da oinarri ezargarrian 100eko 95eko beste hoberi bat sartu dela hildakoaren hirugarren mailarainoko alboko ahaideek enpresa individual bat, negozio profesional bat edo entitateetako partaidetzak "mortis causa" eskuratzen dituztenean, baldin eta ondorengo ahaiderik edo adoptaturik ez badaude.

4. artikulua bitartez, aldaketa batzuk egin dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauan. Aldaketa horietako batzuek izaera tekniko soila dute eta beste batzuek, aldiz, funtsezko aldaketak egiten dituzte haren erregulazioan.

Hona hemen azken aldaketa nagusi horien iruzkin laburra:

- Zenbatespen objektiboaren metodoa sartu da oinarri ezargarriaren zehaztapen metodo gisa, foru arau bidez horrela aurreikusten denean.

- Aparteko mozkinak berrinbertitzeagatik egiten den zerga onuraren erregulazioa aldatu da. Horren ondorioz, ustiapen ekonomikoei lotutako aktibo material edo inmaterialak eskualdatuz lortutako errentak geroratu beharrean oinarrian sartu gabe geratuko dira, eta aktibo finantzarioak eskualdatuz lortutako errenten 100eko 50a ere ez da sartuko oinarrian, baldin eta berrinbertsiorako beharkizun batzuk betetzen badira. Horrek berarekin dakar enpresa guztiei aplikatzea, gehikuntza salbuetsiaren mugarik gabe, lehendik enpresa txiki eta ertainetarako jasota zegoen salbuespenaren onura.

- Oinarri ezargarrien konpentsazioari dagokionez, konpentsatutako zergaldietako beharrezko likidazio edo autolikidazioaren beharkizuna sartu da.

- Ikerkuntza eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jarduerengatik dagoen kenkariaren erregulazio egituratuagoa sartu da. Erregulazio horretan sartutako berrikuntzen artean, aipatu behar da ibilgetu material eta inmaterialaren elementuetan egindako inbertsioak sartu izana, ondasun higiezinak eta terrenoak kanpoan utzita, kenkari eskubidea ematen duten kontzeptu gisa ulertzearen ondorioetarako.

- Enpresa txiki eta ertainetarako beste kenkari bat sartu da, energia berriztagarriaren iturriak aprobetxatzeko egindako inbertsioengatik.

- Enpresarien kontribuzioengatik kenkari bat finkatu da, enpresen gizarte aurreikuspeneko tresna gisa jarduten diren enpleguko pentsio planei, gizarte aurreikuspeneko mutualitateei edo borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei dagokienez.

- Eragiketa bolumenaren eta ibilgetu garbiaren gehieneko zenbatekoak gehitu dira, Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako enpresa txiki edo ertaintzat hartzeko aukera ematen dutenak.

- Sozietate taldeen erregimen berezia aldatu da eta, beste aldaketa batzuen artean, "zerga kontsolidazioko erregimena" izena hartuko du.

- Diruzkoak ez diren ekarpenen kasuan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek egindako sozietate akzio edo partaidetzen ekarpenei ere aplikatuko zaie bategite, bereizketa, aktiboen ekarpen, balio trukaketa eta aktibo eta pasibo osoaren lagapenaren erregimen berezia.

- Salbuetsiak izan edo salbuetsi gabeak izan, errenta guztiak aitortzeko betebeharra finkatu da, Foru Arauak VIII. tituluko XV. kapituluan aipatutako subjektu pasibo salbuetsien kasuan.

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jokatu den bezala, oinarri ezargarrian ez dira sartuko abere aziendak derrigorrez hiltzearen ondorioz jasotako kalte-ordain publikoak, epidemia edo gaixotasunak amaitzeko jarduketan barruan.

5. artikulua bitartez, Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Araua aldatu da. Kasu honetan, aipatu behar da etxebizitza kooperatibak bereziki babestutako kooperatiben erregimenean sartu izana, bai eta beste titulu bat sortu izana ere herri onurako kooperatiben eta herri ekimeneko kooperatiben zerga erregimenari buruz. Beste alde batetik, hainbat aldaketa sartu dira Foru Arauan jasotako erregulazioa Euskadiko Kooperatiben Legearen azken aldaketetara egokitzeko asmoz, menpeko finantzaketa gastu kenkaridun gisa ulertzeko aukera ere emanez.

6. artikulua bidez, Ganbararen baliabide iraunkorra finkatu eta arautzen duen abenduaren 28ko 22/1993 Foru Araua aldatu da. Izan ere, 2002. urterako aldatu da, eurotan, ganbararen kuotaren gutxieneko zenbatekoa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kuota tributarioen gaineko 100eko 2aren ordainarazpenari dagokion zatian.

7. artikulua bidez, Ondare Eskualdaketan eta Agiri Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 18/1987 Foru Araua aldatu da. Aldaketa horien artean bereziki aipatu behar da ondare eskualdaketengatik egindako errentamenduko kontratuen tributazioa egokitu izana indarrean dagoen

Errentamendu Hiritarren Legean etxebizitza errentamenduen luzapenei edo etxebizitzakoaz bestelako erabilerako errentamenduei buruz jasotako erregulaziora. Beste aldaketa bat eskrituren lehen kopien eta zenbait erregistrotan inskribatu beharreko akta notarialen egintza juridiko dokumentatuengatik zergapetzeari buruzkoa da. Azken urteotan aipatu erregistroak berrantolatzen ari direnez, berrantolaketaren ondorioz sortutako erregistro berriak aipatu behar dira.

18/1987 Foru Arauan egindako azken aldaketak zerikusia du Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauan sartutako aldaketekin. Izan ere, 18/1987 Foru Arauan jasotako salbuespen bat azken horretara pasatu da, egoki iritzi baitzaio kooperatiben zerga erregimena 2/1997 Foru Arauan osorik sartzeari.

8. artikulua bidez, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 5. Artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatu dira. Lehen aldaketak zerikusia du zergaren subjektu pasiboak zehaztearekin, eta helburua da argi eta garbi ezartzea usufuktu edo azalerako emakida administratibo baten edo ondasun eskubide batzuen kasuan subjektu pasiboa eskubide horien titularra izango dela eta ez, ordea, eskubide horiei lotutako ondasunen jabea. Bigarren aldaketan, aldiz, foru arau maila eman zaio Foru Aldundiak zergabilketan eskainitako zerbitzuaren kostuaren zehaztapenaren erregulazioari, zergaren kudeaketa, likidazio, ikuskaritza eta bilketaren eskuordea emateko udalekin sinatutako hitzarmenei dagokienez; era berean, kostu hori finkatu egin da.

9. artikulua bidez, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testu bateratuari buruzko apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailea aldatu da. Alde batetik, hirugarren xedapen gehigarriari eragiten dio, eta hemen ere helburua da foru arau maila ematea Foru Aldundiak zergabilketan emandako zerbitzuaren kostuaren zehaztapenaren erregulazioari, zergaren kudeaketa, likidazio, ikuskaritza eta bilketaren eskuordea emateko udalekin sinatutako hitzarmenei dagokienez, bai eta kostu hori finkatzea ere. Beste aldetik, Zergaren tarifetako lehen sekzioko 861 epigrafeari dagokion kuota zehazteko portzentajea aldatu da, eta berrikuspen katastralek atera diren balio berrietara egokitu da.

10. artikulua bidez, urtarrilaren 31ko 1/1985 Zergen Foru Arau Orokorra aldatu da. Hainbat alderdi aldatu dira horren ondorioz: ordezkari bidez jarduteko ahalmena; bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoa erabiliz egindako jakinarazpenen erregulazioa; Zerga Administrazioak zerga liburuaren aurkezpena exijitzeko aukera, egiaztapenaren kasuan ofiziozko behin-behineko likidazioa emateko; eta ondasun bernadunez bestelako ondasunen enbargoaren aurretiazko exekuzioa, zerga zorrak ordaintzeko.

Xedapen gehigarrietan hainbat zerga osagai arautu dira. Lehendabizikoan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan 2002. urtean aplikaziozkoak izango diren eguneratze koefizienteak arautu dira. Bigarrenean, Sozietateen gaineko Zergan 2002. urtean hasten diren zergaldiei aplikaziozkoak zaizkien zuzenketa monetarioko koefizienteak arautu dira. Hirugarren xedapenean, zenbateko finkoa duten eta Foru Aldundiko departamentuetan kudeatzen diren tasak 100eko 2 gehitu dira. Laugarrenean, bingo kartoiak erosteko tasa arautu da. Bosgarren xedapenean, balio katastral landatarrak 100eko 2 gehitu dira. Seigarrenean, datu katastralaren eskurapen modua arautu da, eta, hor jasotakoaren arabera, kasu askotan datu horiek eman ahal izango zaizkie titularrak edo Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak ez diren

pertsoneri. Azkenik, zazpigarren xedapenean ezarpen tasak eta kuota finkoak jaso dira zorte, enbido edo zorizko jokoen edo apustuen gaineko zerga tasari aplikaziozkoak izanik.

Xedapen iragankorretan Foru Arauaren barruan Sozietate Zergari dagokionez egindako aldaketa batzuen aldi baterako neurriak jasota daude. Neurri horiek eragingo diote aparteko mozkinak berrinbertitzean oinarrian ez sartzeko erregimen berriaren aplikazioari edo zerga kontsolidazioko erregimena aplikatzeko beharkizun berriak betetzeari.

Amaierako xedapenean, Foru Araua indarrean jartzeko data eta ondorioak jasota daude, eragotzi gabe Foru Arauaren beste xedapen batzuetan jasotako ondorioak.

(...)

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Laugarrena. Tasa bingo kartoiak erosteagatik.

Bat. Tasa izaera izango dute Gipuzkoako Foru Aldundiak bingo kartoiaren salmentaren kontraprestazio gisa jasotako ondare prestazioek.

Bi. Bingo kartoiaren unitateen salmenta izango da tasa honen zerga gaia.

Hiru. Zerga gaia diren kartoiak erostean sortuko da tasa.

Dena den, kartoia saldu aurretik ordaindu beharko da.

Lau. Tasaren subjektu pasiboak izango dira bingo jokoa ustiatzeko baimen administratiboaren titularrak diren pertsona edo entitateak, eta, hala dagokionean, haren kudeaketaz arduratzen diren zerbitzu sozietateak.

Era berean, bingo jokoa antolatu edo egiten duten pertsona edo entitateak ere izango dira subjektu pasiboak, baimen administratiborik edo ustiapen baimenik gabe ez dagoenean.

Bost. Zergabilketan laguntzaile gisa jarduteko Zergabilketa Erregelamenduan jasotakoaren arabera baimenduta dauden entitateetako baten bidez ordainduko da tasa (bankuak, aurrezki kutxak edo kreditu entitateak).

Sei. Zenbatekoa exijitzeko oinarri gisa erabiltzen diren kuantifikazio elementuak eta irizpideen kopurua eta identitatea aldatu ahal izango dira foru arau bidez.

Aurreko paragrafoan jasotakoaren ondorioetarako, zenbatekoa exijitzeko oinarri gisa erabiltzen diren kuantifikazio elementu eta irizpidetzat hartuko da bingo kartoiaren hornikuntzaren kostu unitarioa, kontuan hartu gabe ageriko balioa.

Zazpi. Aurreko apartatuan aipatutako elementu eta irizpideak aplikatuta ateratzen diren zenbateko finkoak foru dekretu bidez aldatu ahal izango dira.

Zortzi. Aurreko apartatuan jasotakoaren arabera tasaren zenbateko finkoa aldatzen duten foru dekretuekin batera, memoria ekonomiko-finantzario bat aurkeztu beharko da hornikuntza eta zerbitzuaren kostuari buruz eta tasaren zenbatekoaren justifikazioari buruz. Tasa egokitu beharko da Tasa eta Prezio

Publikoei buruzko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru Arauak 7. artikuluan jasotako baliokidetasun printzipiora.

Beharkizun hori ez betetzeak berarekin ekarriko du xedapena zuzenbidean erabat deuseza izatea.

Bederatzi. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak kudeatu eta bilduko du tasa.

Hamar. 2002. urtean bingo kartoen erosketa tasa 0,007473 eurokoa izango da.¹

Zazpigarrena. Zorte, Enbido edo Zorizko Jokoen gaineko Tasan aplikaziozkoak diren zerga tasak eta kuota finkoak onartzea.

(Indargabetua)²

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, salbu edukian bestelakoa xedatzen bada.

¹ Kopuruaren zenbatekoa Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2007rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 9/2006 FORU ARAUaren bostgarren xedapen gehigarriak aldatu du (2006ko abenduaren 29ko GAO).

² Xedapen gehigarria hau, Gipuzkoako Jokoen gaineko Zergari buruzko otsailaren 1eko 1/2005 FORU ARAUak, (GAO 2005-02-07) indargabetu du, bere xedapen indargabetzailearen bidez.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Abenduaren 19ko 22/2003 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2004. urterako aurrekontu orokorrak onartzen dituen (GAO 2003-12-31).*
 - Bere Zazpigarren Xedapen Gehigarriak, foru arau honetako zazpigarren xedapen gehigarriaren 3 apartatua aldatu du.

- *Otsailaren 1eko 1/2005 FORU ARAUA, Gipuzkoako Jokoaren gaineko Zergari buruzkoa (GAO 2005-02-07).*
 - Xedapen indargabetzaileak laugarren xedapen gehigarria indarrean mantentzen du eta zazpigarren xedapen gehigarria indargabetzen du.

- *9/2006 FORU ARAUA abenduaren 22koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2007rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen (GAO 2006-12-29).*
 - Bere bosgarren xedapen gehigarriak laugarren xedapen gehigarriko hamargarren apartatuan azaltzen den kopuruaren zenbatekoa aldatzen du.